

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 2217

*339/2020 EBAZPENA, otsailaren 28koa, Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzetako Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Alberto de Miguel Oteo jauna Zelarien arduradun (Erretena eta Larrialdiak) izendatu baita, izendapen aske bidez, Osakidetzako Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzetako Erakunde Sanitario Integratuan.*

Azaroaren 18ko 1876/2019 Ebazpenaren bidez, deialdia egin zen Osakidetzako Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzetako ESlan Zelarien Arduradunaren (Erretena eta Larrialdiak) lanpostu bat izendapen aske bidez betetzeko.

Balorzio batzordeak aurkeztutako eskabideak baloratu ditu, eta dagokion izendapen proposamena egin du. Horiek horrela, eta Alberto de Miguel Oteo jaunak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, zera erabaki da: pertsona hori izendatzea, Zelarien arduradun (Erretena eta Larrialdiak), Osakidetzako Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzetako ESlan).

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko, 8/1997 Legeko 28. Artikuluko hirugarren arau komunean, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko, 186/2005 Dekretuan eta azaroaren 11ko, 255/1997 Dekretuan ezartzen denarekin bat, zera,

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Alberto de Miguel Oteo jauna izendatzea Zelarien arduradun (Erretena eta Larrialdiak) Osakidetzako Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzetako ESlan.

Bigarrena.– Izendapen honi dagokionez, ondorioetarako data hau izango da: 2020ko martxoaren 2a.

Hirugarrena.– Izendapenak egin dituen organoak diskrezionalki kargugabetu ditzake, izendapen askeko sistemaren bidez dagozkion lanpostuetan izendatu dituen langileak. Kargutik kentzeak edo lanpostutik mugiarazteak zera eragingo du: langilea beste postu funtzional batera lekualdatuko dela, baina, edonola ere, interesdunak titular moduan kategoriari dagozkion baldintzei eutsiko diela. Hain zuzen, antzeko ezaugarriak dituen lanpostu bati atxikiko zaio eta, ahal dela, izendapena jaso aurretik betetzen zuen lanpostuak zeuzkan ezaugarri berberekin antolakuntzari eta lurraldetasunari dagokionez. Atxikipen horrek, hain zuzen, kargugabetze-dataren biharamunetik aurrera izango ditu ondoriok, eta Osakidetzak berak ezarritako prozedurari jarraituz gauzatuko da. Lanpostua betetzeko eskatzen diren betekizun eta baldintza guztiak bete beharko ditu.

Laugarrena.– Interesdunari Ebazpen honen berri ematea.

Bosgarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako zuzendari nagusiari, Ebazpen hau EHAA-n argitaratzen den hurrengo egunetik hilabeteko epean.

Barakaldo, 2020ko otsailaren 28a.

Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzetako ESlko zuzendari gerentea,  
SANTIAGO RABANAL RETOLAZA.